



HAL
open science

Eredu latindarraren eragina euskal deklinabidearen XIX. mendeko deskribapenetan

Ricardo Gómez

► **To cite this version:**

Ricardo Gómez. Eredu latindarraren eragina euskal deklinabidearen XIX. mendeko deskribapenetan. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 2009, 43 (1/2), pp.405-421. artxibo-00507122

HAL Id: artxibo-00507122

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00507122>

Submitted on 29 Jul 2010

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Eredu latindarraren eragina euskal deklinabidearen

XIX. mendeko deskribapenetan

Ricardo Gómez

(UPV/EHU, JUMI)

Abstract

This paper explores the traces of the influence of the Latin grammatical tradition on the 19th-century descriptions of the Basque declension. For the purposes of the paper I describe that influence according to the following features: (1) the two-way distinction between singular and plural, with no mention of the indefinite number or mugagabe, and (2) the adaptation of the Basque case system to the six Latin cases. In the first decades of the 19th century, authors like Astarloa, Humboldt and Darrigol proposed some new ways of describing the Basque declension, which reached a considerable success. Nevertheless, the weight of the Latin model remained strong, and it is clear that most of the 19th-century Basque grammarians who followed the Latin model were directly influenced by Larramendi: Garay de Monglave, Blanc, Lardizabal and Ribáry. However, some of the authors discussed here do not reveal such an influence: Hiriart and Gèze.

0. Sarrera¹

Anton Abadiaren hizkuntz ideiak aztertzen ari zela, Beñat Oyharçabalek (1998: 442) hiru multzotan sailkatu zituen ordu arteko euskalariak deklinabideari buruz zituzten ikuspegiak:

- Itxuraz bederen, latinari jarraikitzen zaizkionak, kasuen zerrenda eratzekoan: Oihenart (1638), Micoleta (1653 [1880]), Urte (1712 [1896-1900]), Larramendi (1729).
- Astarloaren jokabidea onartzen dutenak kasu gramatikalak eta adberbialak bereizik: Astarloa (1803), Humboldt (1817), Lécuse (1826).

¹ Beñat Oyharçabal tesi-zuzendari, maisu eta adiskide maiteari eskaini nahi diot ekarpen hau. Lan honetan Joseba A. Lakarrak zuzendutako eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako “*Monumenta Linguae Vasconum* (III): crítica textual, lexicografía histórica e historia de la lengua vasca” (FFI2008-04516) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (GIC07/89-IT-473-07) ikerketa-proiektuen laguntza izan dut. Nire eskerrona artikuluko honen zirrorra irakurri eta zuzendu duten Borja Ariztimuño eta Joseba A. Lakarrari. Okerrak nire.

- Kasuak morfologiaren arabera bereziki zerrendatzen dituztenak: Harriet (1741), Darrigol (1827), Chaho (1836).

Lehen taldeko gehienak oso ongi aztertu dituzte Alberdik (1989) eta, batez ere, Oyharçabalek berak (1989, 1993, 1994); Astarloa eta Humboldt-en proposamenak, berriz, Alberdik (1989) eta Gómezek (1996, 2002, 2007) ikertu dituzte; eta hirugarren taldekoei buruz zerbait aurki daiteke Gómezen (2003a, 2007) lanetan. Garaian garaiko mugak baditu ere, zerrenda honetan ez genuke ahaztu behar Campiónek bere gramatikako “Historia y crítica de la declinación bascongada” atalean (1884: 177-191) eskaini zuen goiko lan gehienen eta besteren baten analisi aitzindaria. Nolanahi ere den, euskal deklinabidearen historiografia osoa oraindik idatzi gabe dago eta iruditzen zait Oyharçabalek ezarritako sailkapena horretarako abiapuntu egokia izan litekeela.

Artikulu honen helburua, ordea, ez da hain handia, askoz xede apalagoa baitu: XIX. mendeko euskal gramatika-lanetan, eredu latindarrak deklinabidearen aurkezpenetan utzi zituen azken aztarnak agerraraztea. Pentsa liteke XIX. mendean euskal gramatikagintza latinaren eraginetik aske zela; izan ere, gramatika arrazionalistatik zetozen analisiak ordurako aski hedatuta zeuden, bereziki Iparraldeko gramatikarien artean (cf. Gómez 2007), eta, bestalde, Astarloa, Humboldt eta batik bat Darrigolen lanek latinarenaz bestelako ereduak eskaini zituzten euskararen kasu-sistema deskribatzeko, hasierako sailkapenean ikusi dugun bezala.

Hala eta guztiz ere, gauza ezaguna da Larramendiren eragina XIX. mendearen amaiera arte luzatu zela, hala euskara idatzian (cf., besteak beste, Pagola 1984, Lakarra 1985, Sarasola 1986) nola hiztegigintzan (cf. Sarasola 1998; Urgell 2000, 2002). Baina Larramendiren itzala ez zen nagusi gertatu euskal gramatikagintzaren esparruan, agian bertan ez dugulako hain nabarmenki kausitzen Urgellek (2000: xvii) euskal kulturaz aipatzen duen geldialdia. Izan ere, XIX. mendearen lehen hamarkadetan, esan bezala, Astarloaren *Apologíak* (1803), Humboldt-en *Berichtigungen und Zusätze*-k (1817) eta batik bat Darrigolen *Dissertation*-ek (1827), bere txikian, Larramendiz bestelako ereduak eskaini zituzten, bereziki Iparraldeko eta atzerriko euskalarien artean arrakasta izan zutenak. Horiek horrela, latinaren eragina nabarmena da oraindik Larramendiren itzalpean ondu ziren XIX. mendeko gramatiketan (Garay de Monglave 1828, Blanc 1854, Lardizabal 1856, Ribáry 1866 [1877]), baina baita, itxuraz bederen, itzal horretatik kanpo dauden beste zenbaitetan ere (Hiriart 1840, Gèze 1873). Artikulu honetan, aipatu gramatikari horiek euskararen kasu-sistema nola deskribatu zuten gaingiroki aztertuko dut eta bakoitzak proposatutako deklinabide-paradigmari arreta berezia eskainiko diot.

Berariaz artikulutik kanpo utzi dut Añibarroren gramatika (*ca.* 1804), mende hasierako lana izanik oraingoz ez baitzuen Astarloa, Humboldt edo Darrigolen erreferentzia, Larramendirenari kontra jartzeko.

1. Latinaren eredu

Eredu latindarra —“greko-latindarra” eta “klasikoa” ere deitua— Europako Mendebaldeko gramatika-tradizioaren oinarrian dago. Gómez Asenciok (2001) gaztelaniaren gramatikei buruz ohartarazi duen moduan, nekez aurki dezakegu euskal gramatikagintzan ere latinaren ereduaren eraginetik guztiz aske dagoen lanik edo autorerik. Izan ere, zeri deitzen diogu gramatika batek “latinaren ereduaren eragina” izateari? Eskuarki, halako baieztapenak egin izan dira, adibidez, euskal gramatika batean latinaren sei kasuak agertzen direnean, edo latinaren gramatiketan ohikoak diren aditz-denboren eta moduen sailkapenak erabiltzen direnean. Baina, era berean, *genitibo*, *numero*, *adjektibo*, *superlatibo*, *komunztadura*, *pertsona* edo *aditz-modu* bezalako adigai teorikoak eta terminoak erabiltzea ere latindar gramatikaren eraginaren barruan sartzen da, eta ez gara halakoez hain erraz ohartzen. Zernahi gisaz, artikulua honetan aztertuko ditudan gramatikariei dagokienez, “latinaren ereduaren eragina” lehenengo adieran erabiliko dut eta, ondorioz, latinaren ereduaren eragina iritziko diot funtsean bi numero eta sei kasuko paradigma gordetzeari.

XIX. mendea arte euskal gramatikagintzaren ekoizpena eredu klasikoaren menpe dago, Europako Mendebaldean bezala. Halakoxeak agertzen zaizkigu, esaterako, Oihenarten (1638/1656) eta Larramendiren (1729) lanak, garai hartako gramatika-lanik garrantzitsuenak. Oso kasu bakanetan lortu zuten autoreok latinaren eta Berpizkundeko gramatikagintza arruntaren ereduetatik aldentzea eta euskararen azterketa beregaina erdiestea. Latinaren ereduari jarraitu zioten euskalariak, ezinbestean, zailtasun nabarmenak izan zituzten euskal gramatikaren zenbait ezaugarri egoki deskribatzeko, baita sarriegi haietaz konturatzeko ere. Izen morfologiari dagokionez, eredu latindarrak muga aski estuak ezartzen zituen: bi numero —singularra eta plurala— eta sei kasuko deklinabidea eskaintzen zituen izenaren flexioa deskribatzeko. Hortaz, euskararen paradigma mugagabea, morfologia ergatiboa, partitiboa eta kasu adberbialak —leku-denborazkoak, instrumentala, destinatiboa, sozietiboa, etab.— azaltzea ez zaizkie erraz gertatuko euskal gramatikari zaharrei. Ildo honetan, Oyharçabalek (1993, 1994) ederki aztertu eta konparatu zituen Oihenarten eta Larramendiren lanek arazo hauei emandako irtenbideak: funtsean, irizpide morfologiko edo formalari jarraituz, Oihenartek kasuen eta hizkien arteko bana-banako egokitasuna ezarri zuen (ik., halaber,

Gómez 2007: xxxiii-xxxiv, 2008: 333). Larramendi, aldiz, irizpide funtzionalaz baliatu zen deklinabidearen paradigmak eratzeko; hau dela eta, latinaren sei kasuak gordetzen saiatu zen, baina kasu bakoitzean ahalik eta euskarazko marka gehienak sartu zituen (ik., halaber, Gómez 1991, 2007: xlv-xlv).

2. Larramendiren deklinabide-paradigma

Atal honetan Larramendiren gramatikako lehenengo deklinabide-paradigmak aurkeztuko ditut, hurrengo ataletan aztertuko ditugun autoreen analisiekin erkatu ahal izateko. Izan ere, XIX. mendean latinaren ereduari jarraitu zioten autore gehienek, neurri handi batean, Larramendiren eskema hartu zuten aintzat. Areago, zenbaitek osoki hartu eta itzuli besterik ez zuten egin, berehala ikusiko dugunez. Hurrengo paradigmak egoki ulertzeko, oroit bedi Larramendiren iritziz euskararen artikulua deklinatzen dela (cf. Gómez 2001, 2007: § 6); beraz, haren gramatikan agertzen diren aurreneko bi paradigmak gainerakoen oinarri izango diren artikulua singular eta pluralarenak dira:

SINGULAR.	PLURAL.
Nom. <i>á, ác</i> — el, la.	Nom. <i>ac</i> — los, las.
Gen. <i>arén, aréna</i> — de, de el, de la.	Gen. <i>en, ena, enac</i> — de los, de las.
Dat. <i>arí, aréntzat</i> — a, para.	Dat. <i>ai, entzat</i> — à, para los, las.
Acus. <i>á</i> — el, la.	Acus. <i>ac</i> — los, las.
Voc. <i>ó, á</i> —	Voc. <i>ó, á</i> —
Abl. <i>aréquin</i> — con el, con la.	Abl. <i>acquin</i> — con los, con las.
<i>agátic</i> — por el, por la.	<i>acgatic</i> — por los, por las.
<i>agábe</i> — sin el, sin la.	<i>acgabe</i> — sin los, sin las.
<i>án, eán, agán</i> — en el, en la.	<i>etan</i> — en los, en las.

(Larramendi 1729: 3-4)

3. Charpentier (1823)

Johann von Charpentier geologo saxoniarrak Baigorriko hizkeraren deskribapen bat utzi zigun eskuizkribu autografo batean, amaitu gabe gelditu zen Pirinioei buruzko monografia batean sartzeko asmoz. Eskuizkribua, Hurchek (2002) argitaratua, gramatika labur batez eta 1.400 bat sarrerako hiztegi batez osatuta dago; xehetasunetarako, ik. Hurch (2002: 113-124). Charpentierrek ez du bere lanean euskal iturririk aipatzen eta, beraz, ezin dugu ziur jakin

aurreko gramatika-lanak ezagutzen zituen, nahiz eta Hurchek (2002: 123, 159. oh.) iradokitzen duen Humboldt (1817) ezagut zezakeela.

Deklinabidearen paradigmetan latinaren sei kasuak erabiltzen ditu, baina ez dugu Larramendiren kasu-sistemaren zantzurik aurkitzen, ez bada paradigmari emandako izenburuan (“Artikulu mugatuaren deklinabidea”):

Declination des bestimmten Artikels.

SINGULARIS			SINGULARIS		
NOM.	<i>Aitac – Aita</i>	der Vater	<i>Amac – ama</i>	die Mutter	
GEN.	<i>Aitaren</i>	(man spricht <i>aitain</i>) des __	<i>Amaren</i>	(man spricht <i>amain</i>) der __	
DAT.	<i>Aitari</i>	dem __	<i>Amari</i>	der __	
ACC.	<i>Aita</i>	den __	<i>Ama</i>	die __	
VOC.	<i>Aita</i>	oh __	<i>Ama</i>	oh __	
ABL.	<i>Aitaganic</i>	von dem __	<i>Amaganic</i>	von der __	
PLURALIS			PLURALIS		
NOM.	<i>Aitec – Aitac</i>	die Väter	<i>Amec – Amac</i>	die Mütter	
GEN.	<i>Aiten</i>	der __	<i>Amen</i>	der __	
DAT.	<i>Aiter</i>	den __	<i>Amer</i>	den __	
ACC.	<i>Aitac</i>	die __	<i>Amac</i>	die __	
VOC.	<i>Aitac</i>	oh __	<i>Amac</i>	oh __	
ABL.	<i>Aitenganic</i>	(man spr. <i>aitetaic</i>) von den	<i>Amenganic</i>	(m. spr. <i>ametaic</i>) von den	

(Charpentier 1823 [2002: 126])

Eredu latindarrari jarraitzen dioten euskal gramatikari gehienek bezala —Mikoleta litzateke salbuespen ezagunena (cf. Alberdi 1989)—, Charpentierrek egungo absolutiboa eta ergatiboa nominatiboaren barruan sartzen ditu, subjektuek har ditzaketan kasuak baitira. Halarik ere, antzematen dien aktibo/pasibo bereizketak gidaturik, Charpentier ez bide da konturatzeko nominatibo “pazientea” eta akusatiboa formalki berdinak direla; ohar bedi hautatu dituen adibideetan eraikuntza ergatiboek ez dutela ageriko objekturik (cf. Hurch 2002: 121):

Der NOMINATIV in *ac* u. *ec* ist handelnd, der in *a* und *ac* (im Plural) ist leidend. Z.B.

- Aitac maitatzen du*, der Vater liebt
- Aitec ikhusten dute*, die Väter sehen
- Aita maitatu da*, der Vater wird geliebt
- Aitac ikhusi dire*, die Väter werden gesehen.

(Charpentier 1823 [2002: 126])

Charpentierrek kasuak eta postposizioak bereizten ditu, bigarren sailean leku-denborazko atzizki batzuk (*an, etan; baithan; goa, koa; at, rat, tara; era, tera; eco; taco*) eta bestelakoren bat (*gabe, quin, z, gaindi*) sartuz (1823 [2002: 128-129]).² Irizpide hori buruan, aise ohartzen da ablatiboaren barnean kokatu duen *-ganik*, kasu-atzizkia baino, postposizioa izatetik hurbilago dagoela: “Der Ablativ *ganic* scheint eher eine Postposition, als eine wirkliche Casusendung zu seyn” (1823 [2002: 127]).

Artikulu mugatuaren eta izen berezien paradigmak aurkeztu ondoren, Charpentierrek artikulu mugagabeari eskainitako atal bat dakar (“Declination des unbestimmten Artikels”), bokatiboa ez gainerako kasuak agerraraziz:

NOM.	<i>Oguiric, Brod</i>	<i>Harag<u>u</u>iric, Fleisch</i>	<i>Gasnic, Käse</i>	<i>Gatcic, Salz</i>
GEN.	<i>Oguieco, __</i>	<i>Haraguieco, __</i>	<i>Gasneco, __</i>	<i>Gatceco, __</i>
DAT.	<i>Oguiri, __</i>	<i>Haraguiri, __</i>	<i>Gasneri, __</i>	<i>Gatceri, __</i>
ACC.	<i>Oguiric, __</i>	<i>Haraguiric, __</i>	<i>Gasnic, __</i>	<i>Gatcic, __</i>
ABL.	<i>Oguitic, __</i>	<i>Haraguitic, __</i>	<i>Gasnitic, __</i>	<i>Gatcitic, __</i>

(Charpentier 1823 [2002: 127-128])

Hurhek ohartarazi bezala (2002: 122), deklinabide mugagabea erakusteko Charpentierrek izen zenbakaitzak hautatzen ditu eta paradigma mugaturako, ordea, pertsona-izenak (*aita, ama*). Zernahi gisaz, Charpentier ez bide da konturatzen euskaran mugatu / mugagabe bereizketa ezin dela alemanez artikulu zehaztu / zehaztugabe bereizketarekin parekatu, paradigma bakoitzari ezarritako izenburuek aditzera ematen duten bezala.

4. Garay de Monglave (1828)

Eugène Garay de Monglave faltsutzaile ospetsuak gramatika izengabe bat aurkeztu zuen 1828an Parisen deitu zen Volney Sariara; eskuizkribua egun Frantziako Institutuan gordetzen da.³ Deklinabidearen aurkezpen orokorra “Le substantif” atalaren barruan dago eta

² Ez ditu postposizio guztiak zerrendatu nahi, bere ustez erabilienak direnak baizik: “Es giebt eine ziemlich große Anzahl von diesen Postpositionen; allein die am häufigsten vorkommenden sind folgende” (Charpentier 1823 [2002: 128]).

³ Beste lan batean (Gómez 2003b) 1829ko Volney Sariari eta bertan parte hartu zuten gramatikei buruzko xehetasunak eman nituen. Orduan adierazi nuen Garay de Monglavek, funtsean, Larramendiren eta Harrieten gramatiketarik kopiatu zuela. Orain gehitu ahal dut gutxienez D’Alembert eta Dideroten *Entziklopediatik* ere hartu bide zuela ezer. Esaterako, gramatikaren zatiketari dagokiona honela dator Garay de Monglaveren eskuizkribuan (1828: 25): “ce qui partage naturellement l’art de parler en deux parties *la lexicologie et la syntaxe*”; geroxeago lexikologia deskribatzen du: “La lexicologie consiste à expliquer tout ce qui concerne la connaissance des mots”. Eta hauxe dakar *Entziklopediako* “Grammaire” artikulua (VII, 843): “ce qui partage

eskuizkribuko 25-31. orrialdeak hartzen ditu. Hona hemen Garay de Monglavek ematen dituen lehenengo deklinabide-paradigmak, Larramendirenetatik zuzen-zuzenean hartuak:

Singulier.

nominatif. *á, ác*, le la
génitif — *arén, aréna*, du, de le, de la.
datif — *arí, aréntzat*, à, au, pour.
accusatif — *á*, le la
vocatif — *ó, á*. –
ablatif — *aréquin* – avec le ou la
agátic – par le ou la
agábe – sans le ou la
án, eán, agán, dans ou en le ou la

Pluriel.

nominatif. *ac*, les.
génitif — *en, ena, enac*, des.
datif — *ai, entzat*,⁴ aux, pour les.
accusatif — *ac*, les.
vocatif — *ó, á*. –
ablatif — *acquín* – avec les
acgatic – par les
acgabe – sans les
etan, dans ou en les.

(Garay de Monglave 1828: 25-26)

Jarraian, Garay de Monglavek Larramendiren oharrak (1729: 4-7) errepikatzen ditu, inoiz edo behin ia hitzez hitz errepikatu ere. Halaber, hortik aurrera Larramendiren gramatikari hertsiki atxikitzen zaio, bai paradigmetan baita azalpenetan ere: *Jauna* izenaren paradigma, “De otros artículos del Nombre” atala (1729: 8-11), “Declinación del nombre acompañado” atalaren hasiera (1729: 15-16)⁵ eta “De los nombres propios, y de su declinación” atala

naturellement le traité de la parole en deux parties, qui sont la *Lexicologie* & la *Syntaxe*”; eta geroxeago: “L’office de la Lexicologie est donc d’expliquer tout ce qui concerne la connoissance des mots”. Garay de Monglaveren gramatikaren ediziorako uzten ditut iturri hauen eta aurki nitzakeen gainerakoen berri zehatza ematea.

⁴ Eskuizkribuan *entzac*.

⁵ Hemen sartzten du Garay de Monglavek izenari buruzko atal osoan aurki daitekeen pasarte original bakarra, itxuraz bederen (1828: 29): “On doit à ce dernier [= Baltasar Etxabe] une prosopopée originale, dans laquelle il reproche aux descendants des Espagnols, établis au Mexique, de n’avoir pas adopté la langue basque, mère de la castillane, pour se différencier de la mère-patrie. Le grammairien semble déjà présager dans cet écrit l’urgence

(1729: 18-19) aurkitzen ditugu Garay de Monglaverenean frantsesera itzuli, egokitu edo laburtuak.

Baina eskuizkribuko 29. orrialdearen amaieratik 31.aren amaierara, berriz, iturria aldatzen du eta Harrieten nominatiboaren sei graduak kausitzen ditugu (Harriet 1741: 446-449), nahiz eta oraingoan Garay de Monglavek ahalegin bat egiten duen Harrieten paradigmak osatzeko. Ikus ditzagun, konparazio baterako, nola azaltzen diren lehenengo eta seigarren graduak bi gramatiketan:

Premier degré singulier.

Aita, aitac, pere le pere, aitaren du pere, &c. voyez page 8. & 11.

(Harriet 1741: 446-447)

Premier degré du nominatif.

Singulier. nominatif *aita* le père

génitif — *aitaren* du père

datif — *aitari* au père

ablatif — *aitarequin* du père ou avec le père

(Garay de Monglave 1828: 30)

Sixième degré.

Aitarenarenarenganicacoarenarena, celui de celui de celui de celui de celui du pere, &c.

(Harriet 1741: 449)

Sixième degré du nominatif.

Sing. nominatif *aitarenarenarenganicacoarenarena, celui de celui de celui de celui de celui du père.*

génit — *aitarenarenarenganicacoarenarenaren, de celui de celui de celui de celui de celui du père.*

dat. — *aitarenarenarenganicacoarenarenari, à celui de celui de celui de celui de celui du père.*

abl. — *aitarenarenarenganicacoarenarenarequin, avec celui de celui de celui de celui de celui du père.*

d'une rupture politique. Malheureusement on ne répand pas aussi facilement une langue dans un pays qu'on y établit des académies et des collèges. On sait les vains efforts de Guillaume de Nassau [= Willem Frederik van Oranje-Nassau (1772-1843)] pour naturaliser le hollandais dans la Belgique, et l'on rit encore du fameux decret

Horrekin ixten du Garay de Monglavec substantiboari buruzko atala. Hurrengo orrialdeetan Larramendiren gramatikako atal gehiago kopiatzen ditu eta horietan ere deklinabide-paradigmak agertzen dira, izenordainenak kasu, 48. orrialdean aditzari buruzko atala hasi arte.

5. Hiriart (1840)

Hiriart eskola-maisu baionarrak oinarrizko gramatika didaktiko bat ondu zuen, helburu praktikoa garbi batekin: maisu-maistrei gramatikako eskolak prestatzen laguntzea (1840: v). Horregatik, hitzaurrean, euskara sakonkiago ezagutu nahi dutenei Lécluse eta Darrigolen gramatiketara jotzea gomendatu zien:

Si les Amateurs désiraient connaître un peu à fond les nuances de la Langue Basque, je leur conseillerais de recourir à la Grammaire de M. Lecluse, ainsi qu'à la savante dissertation de M. l'abbé Darrigol, ancien Supérieur du Grand Séminaire de Bayonne. (Hiriart 1840: iv)

Berez bi obra daude Hiriarten liburuaren barruan, bakoitzak oso ezaugarri desberdinak dituela: batetik, "Introduction à la Langue Française et à la Langue Basque" (i-xii eta 1-169. or.), funtsean deklinabide eta aditz paradigmez osatua; bestetik, "Grammaire française par demandes et par réponses, Faisant suite à l'Introduction à la Langue Basque et à la Langue Française, destinée spécialement pour les Écoles du Pays Basque" (171-219. or.), galde-erantzunen bidez antolatutako definizio eta "dotrina" gramatikalak biltzen dituena.

Euskararen izen morfologiari eskainitako zati handienera, sei kasuko paradigmatik aurkezten ditu Hiriartek (1840: 1-28). Hona hemen lehenengo biak:

NOM QUI COMMENCE PAR UNE CONSONNE.

Singulier.

NOMINATIF	le <i>Prince</i> ,	Princea ou Princeac.
GÉNITIF	du <i>Prince</i> ,	Princearen.
DATIF	au <i>Prince</i> ,	Princeari.
ACCUSATIF	le <i>Prince</i> ,	Princea.
VOCATIF	ô <i>Prince</i> ,	ò Princea.

du docteur Francia [= José Gaspar Rodríguez de Francia (1766-1840)] ordonnant, sous peine de mort, à tout le Paraguay de parler la langue des sauvages guaranis".

ABLATIF	du <i>Prince</i> ,	Princeaz.
	Pluriel.	
NOMINATIF	les <i>Princes</i> ,	Princeac ou Princec.
GÉNITIF	des <i>Princes</i> ,	Princen.
DATIF	aux <i>Princes</i> ,	Princei.
ACCUSATIF	les <i>Princes</i> ,	Princeac.
VOCATIF	ô <i>Princes</i> ,	ò Princeac.
ABLATIF	des <i>Princes</i> ,	Princez.

(Hiriart 1840: 1-2)

Bistan da, Hiriart frantsesetik abiatzen da paradigmak antolatzean, izena nola hasi eta zein genero dagokion, frantsesez artikuluek forma desberdinak hartzen baitituzte. Hala, kontsonantez hasitako izen maskulinoei dagokien paradigmaren ondoren, gainerako konbinaketak aurkezten ditu banan-banan. Ildo horretan oso argigarria da atal horri ezartzen dion izenburua (Hiriart 1840: 1):

DÉCLINAISONS / OU / MODÈLES / *Pour les différentes manières d'écrire, en Fran-/çais et en Basque, les Noms tant Masculins / que Féminins, commençant par une Con-/sonne ou par une Voyelle, ou par une / H muette.*

Paradigma horien ondoan, Hiriartek ez du inolako oharrik egiten kasuen erabilera azaltzeko. Baina hitzaurrean ergatibotasunari buruzko azalpen labur bat ematen du, eredu latindarrean oinarritzen diren beste euskal gramatika batzuetan dagoenaren antzekoa, aldeak alde (cf. Larramendi 1729: 4):

Dans une Proposition, un substantif terminé en *ac*, prouve qu'il est un sujet singulier d'un Verbe actif, tandis que la même terminaison en *ac*, pourra être le nominatif pluriel d'un verbe passif ou intransitif, etc. La terminaison *ec* remplit le rôle d'un sujet pluriel d'un Verbe actif. (Hiriart 1840: vii)

Hala eta guztiz ere, izen morfologiari buruzko orrialdeen amaieran Hiriartek ohar bat gaineratzen du, non bestelako ikuspegi bat aurkezten digun, hamabi edo hamahiru kasuko zerrenda posible dela adieraziz, baina kasuen izenik eman gabe:

OBSERVATION.

On doit avoir remarqué dans les exercices de cet Opuscule, que j'ai suivi, quant aux déclinaisons, le système de nos devanciers; mais on verra par les désinences du nom ce-après décliné, qu'on pourrait porter le nombre des cas au lieu de six, à douze ou treize; il est permis de désirer que quelque bon génie s'avise de nous imposer la dénomination et le nombre des cas à cet égard. (Hiriart 1840: 42)

Eta jarraian paradigma hau eskaintzen du:

DÉCLINAISON COMPLÈTE.

Singulier.

Guiçon,	<i>Homme.</i>
Guiçona,	<i>l'Homme.</i>
Guiçonac,	<i>l'Homme.</i>
Guiçonaren,	<i>de l'Homme.</i>
Guiçonari,	<i>à l'Homme.</i>
Guiçonaz,	<i>de l'Homme.</i>
Guiçonnic,	<i>d'Homme.</i>
Guiçonaganic,	<i>de l'Homme.</i>
Guiçonagana,	<i>vers l'Homme.</i>
Guiçonabaithan	<i>dans ou chez l'Homme.</i>
Guiçonarentçat	<i>pour l'Homme.</i>
Guiçonarekin,	<i>avec l'Homme.</i>
Guiçoneraino,	<i>jusqu'à l'Homme.</i>

Pluriel.

Guiçonac,	<i>les Hommes.</i>
Guiçonec,	<i>les Hommes.</i>
Guiçonon,	<i>des Hommes.</i>
Guiçonei,	<i>aux Hommes.</i>
Guiçonez,	<i>des Hommes.</i>
Guiçonetaric,	<i>des Hommes.</i>
Guiçonengana,	<i>vers les Hommes.</i>
Guiçonenbaithan	<i>dans ou chez les Hommes.</i>
Guiçonentçat	<i>pour les Hommes.</i>
Guiçonekin,	<i>avec les Hommes.</i>
Guiçonetaraino,	<i>jusqu'aux Hommes.</i>

(Hiriart 1840: 42-43)

Goiko oharra eta paradigma ikusita, irudi luke Hiriartek ez zuela Darrigolen lana ezagutu, bertan aurki baitzitzakeen faltan hartzen zituen kasuen deiturak; alabaina, gorago ikusi dugunez, gramatikaren hitzaurrean Lécuse eta Darrigolen gramatikak aholkatzen dizkio euskal gramatikan sakondu nahi duenari.

6. Blanc (1854)

El Impossible vencido gramatikaren bigarren edizioa 1853an kaleratu zen eta hurrengo urtean S.-H. Blanc-ek frantsesezko bertsiio bat argitaratu zuen, funtsean Larramendiren lanaren hala-holako itzulpena izanik.⁶ Ez du merezi gramatika honi buruz gehiegi sakontzea eta, beraz, Larramendirenekin erkatzeko lehenengo paradigmak hona aldatu besterik ez dut egingo:

Singulier.			Pluriel.		
NOM.	<i>á, ác,</i>	le, la.	<i>ác,</i>		les.
GÉN.	<i>arén, aréna,</i>	du, de la.	<i>en, ena, enac,</i>		des.
DAT.	<i>arí, aréntzat,</i>	au, à la, pour.	<i>ai, entzat,</i>		aux, pour les.
ACC.	<i>á,</i>	le, la.	<i>ac,</i>		les.
VOC.	<i>ó, á,</i>	ô.	<i>ó, á,</i>		ô.
ABL.	<i>aréquin,</i>	avec le, — la.	<i>acquin,</i>		avec les.
	<i>agátic,</i>	par le, par la.	<i>acgatic,</i>		par les.
	<i>agábe,</i>	sans le, — la.	<i>acgabe,</i>		sans les.
	<i>án, eán, agán,</i>	dans le, — la.	<i>etan,</i>		dans les.

(Blanc 1854: 10)

7. Lardizabal (1856)

Franko idatzi da Lardizabalen gramatikak Larramendirenari zor dionaz eta zor horren arrazoiez; azkenak, nik dakidala, Mujika (2006) eta Oyharçabal (2006) izan dira. Deklinabidearen paradigmak eta oharrak aurkezterakoan, Lardizabalek Larramendirenak osatzen, egokitzen eta berrantolatzen ditu, gauza gutxi erantsiz. Hala, artikulu singularren eta pluralaren deklinabideari dagozkion paradigmekin, gipuzkerazko “artikuluei” bizkaierazkoak eta nafarrerazkoak gehitzen dizkie, desberdinak direnean; gainera, Larramendik ezarritako azentuak kentzen ditu eta itzulpenen antolamendua zertxobait zehazten du:

NUMERO SINGULAR.

⁶ Blancen lanaren kritika garaikideen artean, cf., esaterako, Vinsonen hau (1877: 118): “la traduction de Blanc, écourtée, est assez défectueuse et la correction du livre laisse beaucoup à désirer. Ainsi à la p. 102 on lit cette affreuse bourde: ‘le verbe *naizó naz*’; il fallait ‘*naiz ou naz*’; *ó* esp. vaut ‘ou’ disjonctif français”. Honen antzeko zerbait errepikatuko du Vinsonen bere bibliografian (1891-98: 51d).

	<u>Guipuzcoa.</u>	<u>Vizcaya.</u>	<u>Navarra.</u>
Nominativo el, la	<i>a, ac</i>	(1)	
Genitivo de el, de la	<i>aren</i>		
	lo de el, lo de la	<i>arena</i>	
	los de el, los de la	<i>arenac</i>	
Dativo á, á el, á la	<i>ari</i>		
	para el, para la	<i>arentzat</i>	<i>arentzaco</i>
			<i>arendaco.</i>
Acusativo el, la	<i>a</i>		
Vocativo (sin articulo)	<i>a</i>		
Ablativo con el, con la	<i>arequin</i>	<i>agaz</i>	<i>arequí.</i>
	por el, por la	<i>agatic</i>	<i>agaiti</i>
	sin el, sin la	<i>agabe, abague</i>	<i>abaga, abagaric</i>
	en el, en la	<i>an, ean, agan</i>	<i>agabe, abague.</i>

NUMERO PLURAL.

Nominativo los, las	<i>ac</i>		
Genitivo de los, de las	<i>en</i>		
	lo de los, lo de las	<i>ena</i>	
	los de los, los de las ...	<i>enac</i>	
Dativo á, á los, á las	<i>ai</i>		
	para los, para las	<i>entzat</i>	<i>entzaco</i>
			<i>endaco.</i>
Acusativo los, las	<i>ac</i>		
Vocativo (sin articulo)	<i>ac</i>		
Ablativo con los, con las	<i>acquin</i>	<i>aecaz, acaz</i>	<i>aequí.</i>
	por los, por las	<i>acgatic</i>	<i>acgaiti</i>
	sin los, sin las	<i>acgabe, acbague</i>	<i>acbaga, acbagaric</i>
	en los, en las	<i>etan, acgan.</i>	<i>acgabe, acbague.</i>

(Lardizabal 1856: 2)

8. Ribáry (1866 [1877])

Ferencz Ribáry hungariarrak, euskaraz ia ezer jakin gabe, euskal gramatika bat argitaratu zuen 1866an, bere ama-hizkuntzan idatzia, baina ezagunago bihurtu zen urte batzuk geroago Vinsonek prestatutako frantsesezko itzulpenari esker. Bestalde, Vinsonek itzulpena osatu zuen hitzurre batekin, ohar sorta luze batekin eta bibliografia eranskin batekin. Ribáryren datu-iturri nagusiak Larramendi eta Lardizabalen gramatikak izan ziren eta euskararen gaineko hausnarketetarako Mahn-en liburuxka (1875) erabili zuen, ordea.

Deklinabideari dagokionez, Ribáryk ere adierazten du euskaran kasu-markak artikuluari — zehazki, “le pronom démonstratif de la troisième personne, qui joue le rôle de l’article” (1866 [1877: 15])— eransten zaizkiola, Larramendik uste zuenaren antzera. Singularra eta plurala bakarrik bereizten dituenetz, Vinsonek ohar batean leporatzen dio mugagabeaz ez konturatzea:

16. C’est là une des plus sérieuses erreurs de M. R. Il y a au contraire en basque une double déclinaison, la *définie* qui consiste dans la suffixation de l’article décliné et qui a par conséquent un singulier et un pluriel, et l’*indéfinie* qui est produite par l’union directe au thème des particules dérivatives et n’est pas susceptible de pluralité. (Vinson 1877: 101)

Ribáry, lehenik, Larramendiren paradigmetan oinarritzen da, latinaren sei kasuak aurkeztuz:

	SINGULIER		PLURIEL	
Nominatif	<i>a, ak</i> “le”		<i>ak</i> “les”	
Génitif	<i>arén</i>		<i>en</i>	
	<i>aréna</i>		<i>ena</i>	
	<i>arénak</i>		<i>enak</i>	
Datif	<i>ari, aréncat</i>		<i>ai, encat</i>	
Accusatif	<i>á</i>		<i>ak</i>	
Vocatif	<i>á</i>		<i>á</i>	
Relatif	<i>arékin</i>	avec	<i>akkin</i>	avec
	<i>agatik</i>	par	<i>akgatik</i>	par
	<i>agábe</i>	sans	<i>ak gabe</i>	sans
	<i>án, eán, agán</i>	dans	<i>etan, akgan</i>	dans

(Ribáry 1866 [1877: 16])

Larramendiren gramatikako ohar batzuk ere errepikatzen ditu. Alabaina, berehala, euskara eta mordvin hizkuntza uralikoa⁷ erkatzean, ikuspegia aldatzen du eta egun “kasu adberbial” deitzen ditugunetarik gehiago sartzen ditu paradigmaman, zeini bere deitura ematen diola:

	SINGULIER.	
<i>Nom.</i>	<i>ečea⁸, ečeak</i>	<i>kutś</i>
<i>Gén.</i>	<i>ečearén, ečearéna</i>	<i>kutt</i>
	<i>ečearénak</i>	

⁷ Talde mordvinikoan bi dialekto daude, erzya eta moksha (ik, besteak beste, Raun 1988); zenbaitek bi hizkuntza berezitat hartu dituzte, bakoitzak bere aldaera estandarra izanik.

⁸ Jatorrizkoan *eceá*.

<i>Dat.</i>	ečearí, ečearéncat	kutti
<i>Accus.</i>	ečea (c'est-à-dire le nom.)	kutt (gén.)
<i>Sociatif</i>	ečearékin (avec la maison)	kutt marhta
<i>Causatif</i>	ečeagatik (par —)	kutt pačk
<i>Caritif</i>	ečeagábe (sans —)	—
<i>Locatif</i>	ečeán, ečeagán (dans —)	kutt-esa

PLURIEL.

<i>Nomin.</i>	ečėak	kuttnä
<i>Gén.</i>	ečėen, ečėena, ečėenak	kuttnen
<i>Dat.</i>	ečėaí, ečėencat	kuttnendi
<i>Acc.</i>	ečėak	kuttnen
<i>Soc.</i>	ečėakkin	kuttnen marhta
<i>Caus.</i>	ečėakgatik	kuttnen pačk
<i>Carit.</i>	ečėakgabe	—
<i>Loc.</i>	ečėetan	kuttnen-esa

(Ribáry 1866 [1877: 17-18])

Ribáryk adierazten du euskal gramatikariek —frantses eta espainiarrek, dio berak— egun kasu adberbialak deitzen ditugunak ablatiboaren barruan sartu dituztela eta, ondorioz, ez dutela ulertu benetako erlazio-atzizkiak direla (1866 [1877: 18]). Aurreko gramatikariei leporatzen dien okerrari erantzuteko, erlazio-atzizkien honako taula hau proposatzen du:

ait “père”, *aitá* “le père”⁹

	SINGULIER.	PLURIEL.
<i>aitárekin</i>	avec le père	<i>áitakkin</i>
<i>aitagátik</i>	par le —	<i>áitakgatik</i>
<i>aitagábe</i>	sans le —	<i>áitakgabe</i>
<i>aitán, aitean</i>	dans le —	<i>áitetan</i>
<i>aitagán.</i>		
<i>aitaz</i>	sur le —	<i>aitakaz</i>
<i>aitez</i>	avec le —	<i>aitakez</i>
<i>aitez</i>	du (<i>ex</i>) —	<i>aitakez</i> ¹⁰

⁹ Vinsonek paradigmaren oinarria zuzentzen du ohar batean (1877: 102): “Nous avons déjà vu que ‘père’ est *aita* (note 17)”. Eta aurreragoko ohar horretan hauxe dakar (1877: 101): “‘Père’ se dit *aita* et non *ait*; cf. *aita bat* ‘un père’; *aita* ‘le père’ est pour *aita-a*, comme le prouve la variété dialectale *aitea* où l’*a* thématique est affaibli en *e* devant l’article *a*”.

Ribáry ez da hor gelditzen eta hurrengo orrialdeetan (1866 [1877: 19-20]) “erlazio-atzizki” eta postposizioen zerrenda luze bat ematen du, kasu adberbialak beste era batean antolatuz. Erlazio-hizki gehienei deitura bat jartzen die, bakoitzaren frantsesezko itzulpenak gehitzen ditu eta inoiz hungarierazko ordainekin osatzen ditu; ondoren euskarazko adibideak eta haien frantsesezko itzulpenak datoz. Aurkezpen hau gehiago ez luzatzearren, ez dut zerrenda osoa hona ekarriko; aldiz, interesgarria iruditzen zait haren aurretik zerrenda aurkezteko Ribáryk dioena:

Je vois, dans la partie de mes grammaires consacrée à la syntaxe, à propos de la préposition et de l'article français et espagnol *de, des* qui, nous le savons, ne sont pas seulement des expressions de génitif, mais correspondant dans les idiomes de notre famille [hots, uralikoak]¹¹ soit à divers suffixes relatifs, soit à divers mots de relations (postpositions), — que les grammairiens, ne sachant pas se reconnaître au milieu des suffixes analogues de la langue basque, les ont traités comme des postpositions et des adverbes. (1866 [1877: 18])

9. Gèze (1873)

Louis Gèze frantsesaren gramatikan eredu latindarraren eragin apalagoa aurkitzen dugu. Alde batetik, deklinabide mugagabea eta mugatua bereizten ditu (1873: 11)¹² eta, bestetik, guztira hamalau kasu aurkezten ditu. Zernahi gisaz, hamalau kasu horiek latinaren sei kasuko eskemari egokitzen dizkio: “Nous distinguons quatorze cas: trois nominatifs, un vocatif, deux génitifs, quatre datifs, deux accusatifs et deux ablatifs” (Gèze 1873: 7). Ohartarazi behar da nominatibo eta akusatibo “dubitatif” deitzen dituenak —partitiboa, alegia— mugagabeen baizik ez dituela sartzten, espero bezala, eta bokatiboa, aldiz, mugatu singular eta pluralean. Horiek horrela, Gèze-ren paradigma mugagabeen hamahiru kasu agertzen dira, eta mugatuetan hamabi.

¹⁰ Oraingoan ere Vinsonen Ribáryren huts batzuk zuzentzen ditu ohar batean (1877: 102): “Le suffixe *z* dans son emploi le plus général marque l'instrumental.— *aitaz* est l'instrum. sing. déf. ‘par le père’; *aitez* l'indéfini ‘par père’; *aitez* est aussi la forme tronquée du défini pluriel ‘par les pères’.— *aitakaz* et *aitakez* n'existent pas”.

¹¹ Garai hartan eta geroago ere ohi zenez, Ribáryk hizkuntza uralikoak altaikoen barruan sailkatzen zituen.

¹² Hala eta guztiz ere, orrialde batzuk gorago, numeroari buruz aritzean, beste haxe dio: “Il y a en basque comme en français deux nombres, le singulier et le pluriel” (1873: 7).

Ondorioz, Gèze-ren paradigmetan ikusmolde morfologikoaren eta eredu latindarraren arteko konbinaketa bat aurkitzen dugu, hurrengo tauletako lehen eta bigarren zutabeetan aski ongi islatzen den bezala:

DÉCLINAISON INDÉFINIE

<i>nominatif</i>	simple	<i>gérren</i> , broche
	dubitatif	<i>gerrénic</i>
	actif	<i>gerrénec</i>
<i>génitif</i>	possesif	<i>gerrénen</i>
	relatif	<i>gerrénetaco</i>
<i>datif</i>	simple	<i>gerréni</i>
	de situation	<i>gerrénetan</i>
	de direction	<i>gerrénetara</i>
<i>accusatif</i>	de changem ^t	<i>gerrénetarat</i>
	simple	<i>gérren</i>
	dubitatif	<i>gerrénic</i>
<i>ablatif</i>	simple	<i>gerrénez</i>
	de movem ^t	<i>gerrénetaric</i>

DÉCLINAISON DÉFINIE

		Singulier	Pluriel
<i>nominatif</i>	simple	<i>gérrena</i> , la broche	<i>gerrenâc</i> , les broches
	actif	<i>gerrénac</i>	<i>gerrenêc</i>
<i>vocatif</i>		<i>gerréna</i>	<i>gerrenâc</i>
<i>génitif</i>	possesif	<i>gerrénaren</i>	<i>gerrenén</i>
	relatif	<i>gerrenéco</i>	<i>gerrenétaco</i>
<i>datif</i>	simple	<i>gerrénari</i>	<i>gerrenér</i>
	de situation	<i>gerrenían</i>	<i>gerrenétan</i>
	de direction	<i>gerreníala</i>	<i>gerrenétara</i>
	de changem ^t	<i>gerreníalat</i>	<i>gerrenétarat</i>
<i>accusatif</i>	simple	<i>gerréna</i>	<i>gerrenâc</i>
<i>ablatif</i>	simple	<i>gerrénaz</i>	<i>gerrenéz</i>
	de movem ^t	<i>gerrenétic</i>	<i>gerrenétaric</i>

(Gèze 1873: 12)

Nolanahi ere den, Gèze-k bereizten dituen kasuak latinaren eskemari egokitzean eta kasu bakoitzaren zeregina azaltzean, batez ere irizpide semantiko-funtzionala du buruan (1873: 7-10). Irizpide semantikoa bereziki nabarmena da genitiboaren eta ablatiboaren azalpenetan;

irizpide funtzionala, aldiz, nominatibo eta akusatiboarenetan. Gramatikaren helburu didaktikoari dagokionez, sarri frantsesezko ordainak dira haren erreferentzia nagusiak, baina ez bakarrak. Datiboari buruzko azalpenetan, aipatu berri ditudan ezaugarri guztiak agertzen zaizkigu:

IV. Les datifs expriment les différents rapports marqués en général en français par la préposition *à*.

Le datif est dit simple quand il indique une simple transmission; ex.: je dis *à l'homme*, *gizounari erraiten dut*; tu donnes *à l'enfant*, *haurrari emaiten duzu*;¹³

Il est dit de situation quand il indique une situation, un temps; ex.: je suis *à Bayonne*, *Bayounan niz*; *à midi*, *eguerditan*;

Ce cas exprime aussi la préposition *dans*;

Il est dit de direction quand il indique mouvement vers un lieu, mais pour en revenir promptement ou ne faire qu'y passer; ex.: je vais *à l'église* (faire une petite prière), *elizala banoa*;

Il est dit de changement quand il indique mouvement vers un lieu pour s'y établir, ou du moins y faire un séjour; ex.: je vais *à l'église* (pour assister à tout l'office), *elizalat banoa*. (Gèze 1873: 8-9)

Artikulu honen helburua eredu latindarraren aztarnak erakustea besterik ez denez, ez dut Gèze-k euskal deklinabideari buruz egiten duen analisi osoa azalduko. Amaitzeko, beraz, aipa dezadan laburki zer gehiago aurkitzen dugun Gèze-ren gramatikan deklinabidearen inguruan: izen arrunten deklinabide-paradigmak (12-19. or.) eta aldaketa morfonologikoen edo *eufonien* zerrenda (19-20. or.), izen berezien deklinabide-paradigmak (20-21. or.) eta “Remarques” atala (22-26. or.). Azken ohar hauetan askotariko gaiak jorratzen ditu: bizidunen atzizki bereziak; *Jinco*, *etche* eta *erregue* izenen deklinabide berezia; noiz erabili behar den paradigma mugagabea, noiz mugatua eta noiz izen bereziena; frantsesezko *de* preposizioaren funtzioak; izenlagunen eraikuntza eta, azkenik, izen sintagmaren barruan gerta daitekeen mugatzailearen elipsia.

Bibliografia

Abbadie, A. Th. & J. A. Chaho, 1836, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: A. Bertrand.

Alberdi, J., 1989, “Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako”, *ASJU* 23:2, 411-434 [berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.), 1992, 67-90].

Añibarro, P. A., [ca. 1804], *Gramática Bascongada*. L. Villasante (arg.), *ASJU* 3, 3-169, eta *ASJU*-ren gehigarriak, 6, Donostia, 1970.

¹³ Ohar bedi ez duela aditzetan komunztadura datiboa markatzen.

- Astarloa, P. P., 1803, *Apología de la lengua bascongada*. Madril: G. Ortega [berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1983; Valentzia: Librerías “París-Valencia”, 1993; Sevilla: Extramuros, 2009].
- Blanc, S.-H., 1854, *Grammaire de la langue basque, d'après celle du P. Manuel de Larramendi intitulée El imposible vencido*. Lyon-Paris: S. H. Blanc et C^{ie}.
- Campión, A., 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: E. López [berrargit. faksim. Bilbo: LGEV, 1977, 2 lib.].
- Chaho, J. A., 1836, “Grammaire euskarienne”, in Abbadie & Chaho 1836, 1-184 [51-234].
- Charpentier, J. von, 1823, *Paradigmen Baskischer Declinationen und Conjugationen, nebst einem kleinen Wörterverzeichnis, in der zu Saint Etienne (Donosti) Hauptdorf des Thales von Baigorri bei Saint-Jean-Pied-De-Port üblichen Mundart* (Biblioteka Jagiellonska: Coll.ling.quart. 44). Krakovia [ik. Hurch (arg.) 2002: 111-172].
- Darrigol, J.-P., u.g. [1827], *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet.
- Gárate, J., 1933-34, “Correcciones y adiciones a la 1.^a Sección del segundo volumen de la obra intitulada el *Mithridates* sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss”, *RIEV* 24, 460-487; 25, 87-126 [ik. Humboldt (1817)].
- [Garay de Monglave, E.], 1828, *Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque* (Archives de l'Institut de France: Prix Volney, 40H10). Paris: Eskuizkribu argitaragabea.
- Gèze, L., 1873, *Éléments de grammaire basque, dialecte souletin, suivi d'un vocabulaire basque-français & français-basque*. Baiona: V^{ve} Lamaignère [berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979].
- Gómez, R., 1996, “La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca”, *RIEV* 41:2, 607-622.
- _____, 2001, “Artículo y ‘artículo’ en la tradición gramatical vasca”, in Maquieira, Martínez Gavilán & Villayandre (arg.), 2001, 465-478.
- _____, 2002, “Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan”, *Euskera* 47:2, 857-867.
- _____, 2003a, “Darrigolen gramatikaz”, *ASJU* 37:1, 139-156.
- _____, 2003b, “Lau gramatika eta sari bat”, in J. Gorrochategui (arg.), *Basque and (Paleo)Hispanic Studies in the wake of Michelena's work. Proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 389-404.
- _____, 2007, *xix. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*. Bilbo: UPV/EHU.
- _____ & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak* (ASJU-ren gehigarriak, 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Gómez Asencio, J. J., 2001, “Lo latino en las gramáticas del español”, in Maquieira, Martínez Gavilán & Villayandre (arg.), 2001, 35-54.
- Harriet, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Hiriart, A., 1840, *Introduction à la langue française et à la langue basque*. Baiona: V^{ve} Cluzeau.
- Humboldt, W. von, 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*. Berlin: Vossische Buchhandlung [Garateren gzt. itz. (1933-34)].
- Hurch, B. (arg.), 2002, *Die baskischen Materialien aus dem Nachlaß Wilhelm von Humboldts. Astarloa, Charpentier, Fréret, Aizpitarte und anderes*. Paderborn: Schöningh.
- Lakarra, J. A., 1985, “Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan”, *ASJU* 19:1, 9-50.

- _____, 1987, “Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiako lanabesak (I)”, *ASJU* 21:3, 813-916.
- _____ & B. Urgell, 1988, “Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiako lanabesak (II)”, *ASJU* 22:1, 99-211.
- Lardizabal, F. I., 1856, *Gramática vascongada*. Donostia: I. R. Baroja [berrargit. faksim. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2006].
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde [berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979].
- Lécluse, F., 1826, *Manuel de la langue basque*. Toulouse: J. M. Douladoure; Baiona: L. M. Cluzeau [berrargit. in Lakarra (1987) eta Lakarra & Urgell (1988)].
- Mahn, K. A. F., 1875, *Denkmaeler der Baskische Sprache*. Berlin: Dümmler [bada fr. itz. “Monuments de la langue basque. Avec une introduction que traite de l’étude de la langue basque et en même temps contient une description et caractéristique d’elle”, *RIEV* 13 (1922), 562-568].
- Maquieira, M., M^a D. Martínez Gavilán & M. Villayandre (arg.), 2001, *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística, León, 2-5 de marzo de 1999*. Madril: Arco/Libros.
- Mikoleta, R., 1653, *Modo Breue de aprender la lengua Vizcayna* (British Museum: Harl. 6314), Londres [ik. Zelaieta 1995].
- Mujika, J. A., 2006, “Lardizabalen gramatika. Larramendirenaren bertsio ‘didaktikoa’”, in F. I. Lardizabal, *Gramática vascongada*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 283-301.
- Oihenart, A., 1638 [1656], *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris: S. Cramoisy. Bigarren argit. emendatua, 1656 [bigarrenaren berrargit. faksim., J. Gorosterratzuren gaz. itz. eta R. Ciérvideren sarrera dituela, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992].
- Oyharçabal, B., 1989, “Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)”, *ASJU* 23:1, 59-73 [berrargit. in Gómez & Lakarra, arg. 1992, 91-105].
- _____, 1993, “Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 17ème siècle”, *ASJU* 27:1, 265-284.
- _____, 1994, “Oihenart, euskal gramatikarien aitzindaria”, in *Oihenarten Laugarren Mendeurrena* (Iker, 8). Bilbo: Euskaltzaindia, 27-47.
- _____, 1998, “A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza”, in *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra. (Hendaye-Sare 1997)*. Hendaia & Bilbo: Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, 431-451.
- _____, 2006, “Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak”, *Euskera* 51:1, 105-118.
- Pagola, I., 1984, “Neologismos en los Juegos Florales”, *ASJU* 18:1, 53-160.
- Raun, A., 1988, “The Mordvin Language”, in D. Sinor (arg.), *The Uralic Languages: Description, History and Foreign Influences*. Leiden & New York: Brill, 96-110.
- Ribáry, F., 1866 [1877], *Essai sur la langue basque*. Paris: F. Vieweg. Vinsonek hungarieratik itzulia eta oharrez osatua [Hungarierazko lehen edizioa: “A baszk nyelv ismertetése”, *Nyelvtudományi közlemények* 5 (1866), 37-75, 426-474].
- Sarasola, I., 1986, “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20:1, 203-215 [berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.), 1992, 313-325].
- _____, 1998. *Euskal hiztegi gintza xx. mendea arte*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Katedrarako txosten argitaragabea.
- Urgell, B., 2000, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Doktorego tesi argitaragabea.

- _____, 2002, *Euskal Lexikografia*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Irakaskuntza proiektu argitaragabea.
- Urte, P. [1712], *Grammaire Cantabrique Basque* (Antso Jakituna Fundazioa: ZRV 3470), Vitoria-Gasteiz [ik. W. Webster (arg.), 1900].
- Vinson, J., 1877, “Avant-propos” eta “Notes complémentaires”, in Ribáry 1866 [1877, x-xxv eta 99-119].
- _____, 1891-98, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve [berrargit. faksim. liburuki bakarrean, J. Urquijoren oharrekin eta K. Mitxelenaren sarrearekin (ASJUren gehigarriak, 9). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984].
- Webster, W., 1900, *Grammaire Cantabrique Basque faite par Pierre d'Urte*. Bagnères-de-Bigorre: D. Barot.
- Zelaieta, A. (arg.), 1995, *Rafael Mikoletaren era llaburra*. Bilbo: AEK.